



**ARARTEKOAREN AGERTZEA GIPUZKOAKO GIZARTE POLITIKAKO BATZORDEAREN AURREAN, “ETXERIK GABE ETA BAZTERKERIA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN PREMIEI EMANDAKO ERANTZUNA” IZENEKO EZOHIZKO TXOSTENA AURKEZTEKO**

Donostia-San Sebastián, 2007ko azaroaren 29a

- 2006ko ekainaren 14an Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eman nion txostenak, gero –irailaren 27an– Legebiltzar horretako Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu zenak, eta orain Gizarte Politikako Batzorde honetan aurkezten dudanak, gure erkidegoan etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei ematen ari zaien erantzuna aztertzea du helburu. Hau da, baztertuen artean baztertuenak.

Baina, oinarrizko edukiei heldu aurretik, benetan eskerrak eman nahi ditut Biltzar hauek gaia hemen, zuzenean, jorratu ahal izateko agertu duten interesarengatik. Jardunbide hori erabili izan da inoiz Arabako Biltzar Nagusietan, baina hauetan ez, eta honako honetan hartu du parte Arartekoak lehenengoz. Ararteko gisa orain, eta Biltzarretako abokatu gisa lehen, poza besterik ezin dut adierazi.

Egia esan, ez da berariaz Gipuzkoako Lurralde Historikoko txostena, bertara mugatua, baizik eta barne hartzen ditu hiru lurraldeak. Hala ere, ikusiko den bezala, ia alderdi guztietan udalen eta foru aldundien ardura diren eta, ondorioz, Biltzar hauen jarduketa eremuarekin lotura zuzena duten zerbitzu eta erantzunak aztertzen ditu.

Hala, txostenaren oinarrizko elementuak aurkeztuko ditut; horietako asko komunak dira hiru lurraldeetan, baina, aldi berean, hala dagokionean, Gipuzkoako egoeraren berezko elementu bereizgarriak zein diren adierazten saiatuko naiz.

Como corresponde a las funciones del Ararteko, este informe no trata tanto de cuantificar el número de las personas sin hogar y en exclusión grave (un reciente estudio hecho público por el EUSTAT lo calculaba en torno a las 1.800 personas; de ellas, casi 500 (486) en Gipuzkoa), como de valorar la atención que se les presta: analizar cómo es la **red de recursos** que se ha ido creando, sobre todo en las capitales de los tres territorios históricos, detectar sus deficiencias, las **necesidades cubiertas y no cubiertas** y, en función de ese análisis, proponer medidas de mejora.



Con el **concepto “personas en situación de exclusión grave”** nos referimos a las personas que se ubican en la periferia de la exclusión, es decir, personas excluidas dentro del propio conjunto de personas excluidas; que se encuentran desconectadas de las redes normalizadas de atención social. En ocasiones, esta desconexión es el resultado de una incapacidad o dificultad personal y en otras es fruto de la inadaptación del sistema a este tipo de situaciones, fruto de una sociedad que margina o es incapaz de atender a los más débiles.

Durante los últimos años se ha producido un cambio notable en el **perfil de estas personas**. Ya no responden a ese prototipo de hombre solitario, de mediana edad, que se desplazaba de un lugar a otro con sus bolsas y que presentaba signos evidentes de trastorno psicológico. Hoy, las personas que acuden a los centros de acogida nocturna, o a los comedores, o a los centros de día presentan características muy diferentes:

- muchas de ellas son inmigrantes (aproximadamente el 50 % de las personas atendidas en estos recursos en la CAPV son inmigrantes); la mayoría de las personas inmigrantes superan todas las trabas –dificultad para tener contrato laboral en regla y vivienda...–, pero para algunos, los que están más solos principalmente, son imposibles de superar);
- son cada vez más jóvenes (en algunos centros nocturnos la presencia de menores de 30 años ronda el 60%);
- aproximadamente un 20% son mujeres;
- a veces quien se ha quedado sin vivienda no es una persona sino una familia completa;
- muchas de estas personas son consumidoras activas de drogas;
- otras muchas son personas con enfermedad mental...

Una de las características que presenta actualmente la exclusión, y que la diferencia respecto a otras épocas, es que en muchos casos no se trata de situaciones de vulnerabilidad (que siempre han existido) sino de personas con una vida normalizada, estructurada, que, en un momento determinado y por diferentes razones, se sumergen en la exclusión grave. La diversidad, pues, ha crecido y, por tanto, también las necesidades han variado.

Si bien no estamos ante un conjunto de personas homogéneo, podemos destacar los aspectos que, de manera más intensa, los identifica como personas en situación de exclusión social grave:

- Son personas sin techo, es decir, sin alojamiento estable ni vivienda en la que residir.
- Son personas sin recursos económicos o con dificultades para gestionarlos adecuadamente y con estrategias de economía de subsistencia.



- Pero, sobre todo, son personas sin hogar, ya que no mantienen relaciones familiares y viven en una situación de total desarraigo social y familiar, sin apoyos personales ni sociales, que viven al margen de la sociedad y de sus dinámicas, ante las que son más vulnerables que el resto de la ciudadanía.
- Pero en nuestro informe no se trata tanto de analizar el perfil de las personas, o las razones que les han conducido a tal situación, sino de valorar las respuestas que se les están ofreciendo. **La finalidad del trabajo**, tal y como apunta su título, ha sido conocer en profundidad la respuesta que se está dando a estas personas desde las instituciones y los diferentes agentes sociales en cada uno de los tres territorios históricos.

Y es que la atención a las personas sin hogar y en situación de exclusión social grave ha adquirido, en el marco geográfico de nuestra Comunidad Autónoma, una dimensión importante, tanto por el número de servicios y recursos existentes en cada Territorio Histórico como por la variedad y diversidad de las situaciones atendidas. Recursos que han ido surgiendo en un constante esfuerzo de adaptación por parte de las entidades e instituciones para poder responder adecuadamente a situaciones y necesidades cambiantes.

Como consecuencia, en parte, de las variaciones producidas en el perfil y las necesidades de las personas sin hogar, la red de atención a estas personas ha ido aumentando y especializándose, aunque no siempre haya dispuesto de los recursos necesarios, ni de la regulación o la adecuada estructuración del sector.

Tradicionalmente, la atención a las personas sin hogar ha estado enfocada a la cobertura de aquellas necesidades consideradas como más básicas: alojamiento, comida y vestido. Sin embargo, en los últimos años han crecido de forma significativa recursos, programas y servicios que también trabajan aspectos relacionados con la incorporación social.

Esta situación hacía necesaria la elaboración de un diagnóstico que identificase las cuestiones centrales de este fenómeno, describiendo sus características y destacando las debilidades (para establecer las propuestas de mejora necesarias), y las fortalezas (para continuar reforzándolas).

Para elaborar el informe se ha recopilado **información** de todos los recursos disponibles: centros de acogida nocturna, centros de día, comedores sociales; servicios de alojamiento de corta estancia y de larga estancia; centros de incorporación social de baja exigencia y otros con normas más estrictas de acceso...

Se ha analizado el marco normativo y competencial. Se han entrevistado a 9 personas sin hogar con problemas, experiencias y trayectorias vitales muy



diferentes; el informe ofrece sus 9 historias de vida. Se ha recogido, mediante cuestionarios y entrevistas, la opinión de personas expertas. Se han llevado a cabo grupos de discusión, en cada uno de los tres territorios; grupos en los que han tomado parte tanto personas de la administración como, especialmente, personas del tercer sector comprometidas o responsables de la gestión de los recursos... En el caso de Gipuzkoa, se mantuvieron entrevistas con personas tanto de la Diputación Foral como de cuatro ayuntamientos, y en el grupo de discusión participaron representantes de nueve entidades sociales implicadas en la gestión de los diferentes recursos.

- La información recabada queda reflejada en los diferentes capítulos y apartados del informe, que presenta la siguiente estructura:
  - Tras una introducción contextualizadora y el apartado dedicado a exponer la metodología utilizada, se analiza, en el capítulo 3, el marco normativo y competencial de la exclusión social en diferentes ámbitos: Unión Europea, instituciones comunes, diputaciones, ayuntamientos... Este capítulo parte del análisis del Estado de Bienestar y el papel que en él juegan los derechos sociales, y finaliza con las debilidades y fortalezas que, en opinión de las personas consultadas, presenta el actual marco normativo.
  - A continuación, en el capítulo 4, se abordan las cuestiones más teóricas: qué entendemos por exclusión grave y por persona sin hogar, su evolución, los nuevos perfiles y las tendencias de futuro desde la perspectiva de las oportunidades y amenazas del entorno social.
  - En el capítulo 5, el más extenso, realizamos el diagnóstico de la atención, la “foto” de la realidad de la respuesta a este fenómeno, diferenciando la respuesta institucional de la de las entidades privadas y la de la ciudadanía. Analizamos también los modelos de atención, la cobertura nocturna y diurna, el alcance y limitaciones del sistema de atención, y los procesos de incorporación social con sus correspondientes debilidades y fortalezas. Y lo hacemos diferenciando cada uno de los territorios e incluso, cuando es posible, analizando los itinerarios de atención en municipios significativos como es el caso de Donostia-San Sebastián.
  - El informe dedica un capítulo (el 6) al análisis de experiencias de buenas prácticas y de coordinación destacadas en diferentes ámbitos fuera de la CAPV, para conocer qué se está haciendo en otros lugares. Y otro capítulo (el 7) a recoger la voz de las personas sin hogar y sus historias de vida.



- Basándose en el diagnóstico realizado, el capítulo 8 del informe recoge las 30 recomendaciones del Ararteko a las instituciones.
- Por último, el informe se completa con una parte final en la que se recoge la bibliografía y las fuentes de información utilizadas, así como una serie de anexos complementarios. Algunos de ellos, como los cuadros en los que se relacionan los diferentes recursos o el directorio de las entidades que los gestionan, ofrecen una visión bastante global de cuál es la realidad en cada territorio: qué recursos existen en Donostia, en Pasaia, en Tolosa, en Irun, en Andoain...

Como han podido disponer y disponen del informe completo, en la presentación ante esta Comisión me limitaré a destacar algunos aspectos esenciales, especialmente los que tienen que ver con las características y limitaciones del sector, y con las recomendaciones de mejora que efectuamos.

- Los **principales problemas detectados** pueden resumirse en torno a ocho grandes cuestiones:
  - 1) Las lagunas observadas en cuanto a la normativa y a la clarificación competencial de a quién corresponde la atención a estas personas.
  - 2) La descoordinación entre los distintos recursos existentes, la ausencia de criterios comunes de actuación, de protocolos de derivación de unos a otros, de trabajo en red...
  - 3) La dificultad de dar respuesta a determinadas necesidades en función de variables como el lugar (gran parte de los recursos se concentran en la capital), el tiempo (en muchos casos los horarios no contemplan los fines de semana y los días festivos), las exigencias para poder acceder a los recursos (accesibilidad; criterios de acceso), o los nuevos perfiles a atender (familias, personas inmigrantes, personas con patología dual...).
  - 4) La escasa implicación comunitaria, del conjunto de las administraciones, de los servicios o programas ordinarios, en la respuesta a estas personas, especialmente en las áreas de vivienda y de sanidad: políticas de vivienda y de empleo, servicios de salud, programas de prevención, atención a la salud mental...
  - 5) El insuficiente aprovechamiento de la experiencia acumulada, la ausencia en muchos casos de una evaluación sistemática de los programas y recursos, de una planificación participativa.



- 6) Los problemas de sensibilización social, de imagen social acerca de estas personas, que llevan, en algunos casos, incluso a que se rechacen determinados recursos, al menos cuando se pretende ubicarlos en un entorno próximo y normalizado.
  - 7) Los problemas que existen para garantizar la continuidad de los programas, para lograr unas ayudas económicas suficientes o unas condiciones laborales satisfactorias para los profesionales de los servicios, gestionados la mayoría de ellos por asociaciones u organizaciones sin ánimo de lucro.
  - 8) La saturación de determinados recursos...
- Txosten honen bidez, zortzi arazo horiek direla funtsezkoak nabarmendu daiteke eta horiek etxerik gabeko pertsonen beharrei erantzuteko orduan dituzten ondorioak (negatiboak) ikus daitezke. Arazo horietako asko konfigurazioaren beraren (hots, sektorearen ezaugarrien) ondorio dira edo horiei lotuta daude. Jarraian, horietako batzuen bereizgarriak aipatuko ditut:
    - Lehenik eta behin, EAEko esku-hartze sozialak gizarte-bazterkeriako egoeretan laguntzen diharduten erakundeak eta administrazioak ugariak eta anitzak direla du ezaugarri.
    - Bestalde, etxerik gabeko pertsonen zuzendutako ia baliabide eta dispositibo guztiak hiru euskal hiriburuetan biltzen dira. Oro har, 1.135 plaza daude guztira EAE osorako. Horietatik, % 81,2 egonaldi ertainetarako dira eta gainera % 12,8a zuzeneko sarbidekoak, exigentzia gutxiak.  
1.135 plaza horietatik 360 (hau da, ia herena) Gipuzkoan daude.

Hamar dispositibotatik bederatzi 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan kokatuta daude. Hala ere, Gipuzkoan, biztanle gutxiagoko udalerririk batzuek, Tolosak edo Pasaiak, esaterako, badute hauetako baliabideren bat.

Txostenak baliabide mota guztien azterketa xehatua egiten du, kontuan hartuta egunez edo gauez lan egiten duten, horien exigentzia-maila zein den, gehienez zenbat denboraz egon daitezkeen bertan edo asetzen dituzten beharrak zeintzuk diren (ostatu ematea, janaria, jantzia, garbitasuna, etab.). Izan ere, baliabide mota bakoitzak problemática propioa du. Horrela, esate baterako:



– Gaueko arretari dagokionez:

- Gaueko zentroak gaua igarotzeko leku gisa hartzen dira; hala ere, bizilekua emateko dispositiboetan plaza gutxi daudenez, haiek ere zerbitzu hau ematen hasi dira oro har, azpiegitura edo baliabide egokiak izan gabe (adibidez, oheak izan gabe).
- Okupazio indizea % 100ekoa da eta, hala ere, pertsona asko arretarik jaso gabe geratzen dira. Horren ildotik, ohikoa da zerbitzu hauetan dauden plazen kopuruari dagokiona baino pertsona gehiagori eskaintzea arreta edo itxaronzerrenda luzea egotea.

– Hiriburuetan egonaldi laburreko baliabideak beteta daude. Betetze hori, nagusiki, bi fenomenoren ondorio da:

- Eskaria euskal hiriburuetan kokatuta dauden baliabideek xurgatu dute, ez baitago halako baliabiderik 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrri askotan.
- Baliabide horietan migrazio-prozesuan dauden pertsonak sartu dira. Horien beharrezko premiazkoenak beren administrazio egoera arautzea da eta behar oinarritzkoenak asetzea (besteak beste, ostatuarena).

– Eskari guztiari ez erantzun izana, besteak beste, honako alderdi hauei zor zaie:

- Dispositibo batzuetan plaza gutxi daude.
- Pertsona askok ez dituzte betetzen dispositiboetan sartzeko baldintzak, baina ez daude ordezko beste baliabide batzuk.
- Zenbait pertsonak ez du sartu nahi izaten ordutegia mugatua delako eta dispositibo horietako batzuetan bete nahi ez dituzten arauak daudelako.
- Dispositibo batzuetan sartzeko formula, zozketarena edo txartelbilketarena, ez da egokiena pertsona horiek gizarte-bazterkeriako egoeretan laguntzeko sarean barnera daitezkeen...

Gai hauetako batzuen gaineko kexak jaso ditugu Ararteko erakundean, eta artatu gabeko pertsonaren baten heriotza izan denean, ofizioz esku hartu dugu.

– Eguneko arretari dagokionez, nagusiki, janari, jantzi, higiene eta gizarteloturen berrezarpenaren arloetan dauden premia oinarritzkoenak asetzerako bideratutako programetan eta zerbitzuetan jartzen da gogoia eta asistentziazkoa eta banakakoa izateagatik bereizten da. Hona hemen dispositibo horien ezaugarrietako batzuk:



- Etixerik gabeko pertsonak gehien erabiltzen dituzten zerbitzuak jantokiak dira. Horietara zuzenean sartzen dira edo udalek nahiz jantokia kudeatzen duten erakundeek ematen dituzten txartelez baliatuta. Gaur egun, beteta daude.
  - Gizarteratze zentroyen garapena oso ezberdina da lurralde historiko batetik bestera. Horrela, Bizkaian plaza guztien % 80 biltzen da gutxi gorabehera. Gipuzkoan, datuak biltzeko garaian, era honetako hiru zentro zeuden edo daude, guztira ia ehun plazarekin.
    - Zentro horietako plaza asko exigentzia gutxikoak dira eta oso gabezia zehatzak eta egoera fisiko eta psikiko larria duten pertsonen zuzenduta daude.
    - Oro har, eskainitako plaza kopuru egokiena litzatekeena baino okupazio maila handiagoa dute.
  - Baliabide gutxi jasotzen dituen ingurune irekiko esku-hartzea arretadispositiboetan sartzen ez diren pertsonekin harremanetan jartzeko eta gizarte-bazterkeriako egoeran geratzeko arriskuan dauden gazteei zuzendutako prebentzio programak ezartzeko oinarritzko zerbitzua da.
  - Gaur egun, hiru lurralde historikoek gizarte-larrialdietarako zerbitzua dute. Gasteizen, Bilbon bezala, zerbitzu hori Udalarena da. Gipuzkoan, aldiz, foru titulartasuneko da, nahiz eta, kalean bizi diren pertsonentzat baino gehiago, beste era bateko egoeretara bideratua dagoen.
- Eginiko ikerketak agerian utzi du dispositibo horiek erabiltzen dituzten artean burugaixotasuna nahiko ohikoa dela. Hau oso kezagarria da. Gune egokiak ez egoteak zaildu egiten du pertsona horiek dituzten beharrei arreta ematea.

Kontuan hartu behar da premia hauek erantzun sanitario oso espezializatua eskatzen dutela, gizarte zerbitzuek izan ohi ez dituzten profesionalena. Orain arte ez da behar hainbat garatu espazio sozio-sanitarioa, eta ez da bi sistemen arteko behar adinako koordinaziorik lortu pertsonaren mesedetan modu bateratuan lan egiteko. Berez, urte honetan bertan izapidetu ditugun zenbait kezatan aipatzen zen eraginpeko pertsonak agindutako tratamendu medikoarekin jarraitu ezin izatea, bere profilerako egokiak diren gizarte baliabiderik ez dagoelako.





- Errealitate horren aurrean, txostenak gomendio batzuk ematen ditu (30 guztira) eta horiekin antzemandako arazoei aurre egin nahi zaie. Gomendio zehatzak dira eta zerbitzuen arauketa, plangintza edo koordinazioa hobetu nahi dituzte. Horrez gain, erakunde buruzagitza, erantzuteko gaitasuna handitu, eta premia eta profil berriak egokitu nahi dira, eta lan egiteko eretan hobekuntzak bultzatu...  
Azaletik bada ere, gomendio horietako batzuk aipatuko ditut.

- Horrela, adibidez, sektoreko erregulazioari, erakunde buruzagitzari eta koordinazioari dagokienez, honakoak egin behar direla adierazten dugu:
  - Administrazio ezberdinek gauzatu behar dituzten eskumenen eta egitekoen banaketa argitzea. (1. gomendia)
  - Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-azpiegituren arloan arautegi bateratua garatzea. (3. gomendia)

Bi alderdi horiek eragin zuzena dute Eusko Legebiltzarraren ahalmen legegilean eta lotura estua dute txostenaren hirugarren kapituluaren egungo arau-esparruari eta eskumenen banaketari buruz egin dugun analiarekin; orain ez naiz horrekin luzatuko, baina zuen arreta horretara bildu nahi nuke, gizarte-zerbitzuen inguruko lege berria prestatzeko aukera dagoela adierazi baita.

Orobat, pantailan ikus daitekeen bezala (???), beste gomendio asko ere egiten ditugu arretaerduari, plangintzari, jarraipenari, administrazio eta sektore ezberdinen arteko koordinazioari, biztanle talde horren aldeko etxebizitza edo laneratze politikei eta abarri lotuta.

Bereziki, horietako bi aipatu nahi nituzke:

- Seigarrena, erantzun soziala duten baliabideak sortu eta babesteko plangintza eta buruzagitza politikoa eskatzen duena.
- Zortzigarrena, eremu soziosanitarioaren garapenari buruzkoa.

Gero eta pertsona gehiago daude baztertuta eta hori gure gizartea baztertzaila delako da. Bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonen gizartratzea erronka handia da oraindik gure gizarte garatuan. Erronka horrek guztion konpromisoa behar du: administrazio ezberdinena, hirugarren sektorearena –gaur egun dauden baliabide gehienak kudeatzen ditu– eta biztanleena oro har.

Ikuspegi horretatik, benetan kezagarriak dira batzuetan izan diren (eta oraindik ere ikusten diren) erreakzioak pertsona horien oinarrizko beharrei erantzutera



bideratutako baliabideak sortzearen aurka edo zaugarritasun bereziko egoeran daudenen aurka.

Garrantzi sozial handiko kontua da eta, horri dagokionez, hainbatetan esku hartu behar izan dugu; ildo horretatik, 2001ean Ararteko erakundeak ere horren inguruko gomendio orokorra egin zuen.

Zerbitzu soziosanitarioak abian jartzeko beharra dela-eta, aurreratu nahi dut laster eremu soziosanitarioari buruzko ezohizko txosten zehatza aurkeztuko dugula. Horren inguruan, jada eman ditugu lehen urratsak.

- Gomendioen bigarren blokean, baliabide berriak sortzeko beharra adierazi da, edo daudenen egungo ezaugarriak berrikustekoa, pertsona horien behar guztiei erantzuteko ahalmena handitze aldera.

Izan ere, etxerik gabeko pertsona horiek oso behar ezberdinak dituzte. Oinarrizko ez gain (ostatua, jantzia eta etxea), osasunari, arreta sozial eta psikologikoari, prestakuntzari, okupazioari, lanaren sustapenari... lotutakoak daude. Gaur egungo baliabideek, oro har, ez diete behar horiei guztiei erantzuten. Batzuetan, ordutegia oso zorrotza izaten da eta, ondorioz, horien erabilera zailtzen du. Baliabide batzuk itxita egoten dira asteburuetan edo oporretan eta, beraz, eten egiten dute prozesua.

Ezgaitasunen bat duten pertsonentzat ere ez dira eskuragarriak eta, maiz, etxerik gabeko pertsonak egun dituzten ez beste profil batzuetarako pentsatuta daude.

Horregatik, zerbitzu zehatzak sortzea gomendatzen da, profil guztiez arduratu eta gizarteratze prozesuko fase ezberdinak kontuan har ditzaten. Txosteneko analisiarekin bat etorriz, premia edo joera orokor hori are nabarmenagoa da behar beste arreta jasotzen ez duten talde, sektore edo premia jakinei dagokienez:

- buru-gaixotasuna eta patologia duala. (13. gomendioa)
- droga-mendetasunen arloan arriskuak murriztea edo desintoxikazioa bultzatzea. (14. gomendioa)
- eriondo diren eta, ospitaleko alta jaso arren, erabat sendatzeko lekurik ez duten pertsonak. (15. gomendioa)
- gero eta gehiago ikusten diren taldeak, besteak beste, etxerik gabeko hainbat kide dituzten familiak, bakarrik dauden gazte atzerritarrak edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden etorkinak. (16. gomendioa)
- gizarte-zerbitzuekin harremanik ez duten pertsonak. (17. gomendioa)



- garaiz eten ezean, baztertuta geratzea eragin dezaketen krisi prozesuak. Arretak malguagoa izan behar du horretarako. (18. gomendioa)
  - ezgaitasuna duten pertsonen premia zehatzak. (19. gomendioa)
  - gizarteratze prozesuari eta exijentzia-mailari dagokienez dauden egoera oso ezberdinak. (20. gomendioa)
- Azken blokean, hobekuntza kualitatibo batzuk bildu ditugu; horiek aplikatuz gero, sektorea bera eta eskaintako zerbitzua funtsean hobetuko lirarteke.

Adibide gisa, honakoak azpimarra daitezke: pertsona horien erroldatzeari trabak ez jartzea (funtsezkoa baita zenbait baliabide eskuratu ahal izateko —25. gomendioa—), finantzaketa hobetzeko beharra (28. gomendioa), etxerik gabe edo gizarte bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonen laguntzen diharduten langileen lan baldintzak hobetzea (26. gomendioa) edo segurtasun langileen zehapenen edo esku-hartzearen xede diren gizarte zerbitzuen erabiltzaileentzat bermeak jartzearen garrantzia (30. gomendioa). Gai hauen inguruan ere —zehazki, esku-hartze sozialaren sektoreko lan baldintzei buruz— aparteko beste txosten bat prestatzen ari gara.

- Ikus daitekeen bezala, 30 gomendio horietako asko oso zehatzak dira. Era honetako txostenetan erabili ohi dugun jarraipen bide bat baliabideak kudeatzen dituzten eta, beraz, egunerokotasunean egiaztatutako informazioa duten elkarteekin aldizka bilerak egitean datza. Duela lau bat hilabete egin genuen azkeneko bilera Gipuzkoako elkarteekin. Txostenean adierazitako eta hemen azaldutako arazoek jarraitu egiten dute; eta, gainera, beste arazoren bat ere bada, dutxa publikoak erabiltzeko zailtasunak, kasu. Baina, oro har, azaldutakoa nabarmentzen da: koordinazio arazoak, espazio sozio-sanitarioa, osasun mentaleko arazoak, gizarte baliabideetan jarraitutasunik ez duten alta psikiatrikoak, etab. Kezkagarria da bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera ere, 18 urte bete eta beren baliabideetara jotzen dutenean. Alderdi positiboen artean, eskumenen berrantolaketak piztutako itxaropena nabarmendu behar da; arlo honetako ardurak Foru Aldundiko sail bakarrean bildu dira, eta ez bitan, lehen bezala.

Ikus dezakezueenez, oso gai zehatzak izaten dira askotan. Halakoxeak dira txosteneko gomendio asko. Baina, proposamen zehatz horien azpian, proposamenok eusten, hari bat dago, oinarrizko erronka, proposamen horien guztien oinarri dena: onartezina da pobrezia eta bazterkeria larriko egoerarik egotea; hazkunde ekonomiko iraunkorreko testuinguru batean, gizarte-eredu solidarioa bultzatu behar da, gizarte-kohesioaren elemento garrantzitsuena baita; eredu horrek gure ekonomietan eta gizarteetan



etengabe gertatzen diren egiturazko aldaketei aurre egiten lagunduko digu, bestelako zatiketarik, baztertzeko beste modurik eta marjinaziorik gabe.

Txostenak arrisku bat antzeman du, hain zuzen ere, bazterkeriaren ondoriozko muturreko pobrezia egoerak ez ote diren areagotuko. Horrek, pentsarazi egin behar digu, batetik, zein gizarte-eredurantz goazen, eta, bestetik, ahalik eta pertsona gehien integratu behar dela normalizatutako gizarte eta lan sareetan. Arrisku hori gertatu ez dadin alderdi askoren ahalegina behar da, ez bakarrik gizarte-zerbitzuena eta erabiltzaileena eurena, baizik eta baita eragile ekonomikoena eta sozialena eta erakundeena ere, horiek baitira gizartearen motoreak. Txosten honetan jasotako ahulezia egoerek gizarte-kohesioari lagunduko dioten elkartasun jarrerak eta jardunbideak Portu behar dituzte, horixe baita gai publikoen kudeaketaren helburu garrantzitsuenetakoa.

Datozen urteetan biztanle talde honen kopurua handitzen edo txikitzen den, gure gizartearen benetako konpromisoa eta elkartasuna jarriko da agerian. Kasu honetan, gipuzkoarrena.

Nire azalpenarekin amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet txostena egiten lagundu diguten pertsona eta erakunde guztiei, eta bereziki eskerrak eman nahi dizkiet Biltzar hauei, ni bertaratzeko eskaera egiteagatik, eta zuen esanetara jartzen naiz balorazio, galdera edo iradokizunak entzuteko.

Eskerrik asko.